BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

**PRENTSARAKO OHARRA**

# ENKARTERRIETAKO MUSEOAK ASTEBURU HONETAN HASIKO DITU BARRIRO ABELLANEDAKO MOLTSO MONUMENTALERA EGITEN DITUAN DOBAKO BISITA GIDAUAK

- **Enkarterriko museoko gidariek Abellanedako eraikinen xehetasun historiko eta arkitektoniko guztiak azalduko ditue: Batzarretxea, Korregidorearen Etxea, Batzarkideen Ostatua eta Aingeru Zaintzailearen baseleizea, eta baita goi-lautadea kostaldeagaz lotzen eban errege galtzadea be.**

- **Babeserako neurriei eusteko helburuagaz, bisitak,** www.enkarterrimuseoa.eus **webgunearen bitartez aurretik eskatu ahal izango diran hitzorduakaz egingo dira**

(*Bilbon, 2020ko irailaren 18an*). Enkarterrietako Museoak, asteburu honetan hasiko dau barriro Abellanedako moltso monumentalak gordeten dituan “altxorrak” erakusteko bisita gidau programea. Aurretik hitzordua eskatuta egin beharko dan bisitaren bitartez, Enkarterrin dagon museoko gidariek leku horretako eraikin historikoen xehetasun guztiak azalduko ditue: Batzarretxea, Korregidorearen Etxea, Batzarkideen Ostatua eta Aingeru Zaintzailearen baseleizea, eta baita goi-lautadea kostaldeagaz lotzen eban errege galtzadea be.

Bisitea, segurtasunezko neurri guztiak jarraituta egingo da (talde txikia, musturrekoa, eta partaideen artean gorde beharreko gitxieneko segurtasunezko tartea gordez), eta beharrezkoa izango da aurretik izena emotea museoaren www.enkarterrimuseoa.eus webgunearen bitartez. Topalekua Enkarterrietako Museoa, Abellaneda (Sopuerta) izango da, eta txanda bi antolatu dira iraileko eta urriko lau egunetan (irailak 19 eta 27 de septiembre, eta urriak 11 eta 17): goizeko 10:30ean euskeraz eta 12:15ean gaztelaniaz. Bisitak ordubetekoak minutukoak izango dira. Jarduerea egiteko beharrezkoa izango da gitxieneko partaide kopuru jakin bat egotea.

Bisitariak Abellanedaren jatorriaren eta leku horretan biztanleak ezarteko prozesuaren faseen ganeko azalpenak jasoko ditu. Abellaneda familiaren sustraietan sakonduko da. XI. mendetik inguru horretan bizi izan zan nobleziako familiak Enkarterriko Batzar Nagusiak bultzatu ebazan. Ibilbidean errege galtzadara gerturatzeko tartetxo bat be egongo da. Eskualdeko merkataritzako ardatza izan zan, biztanle kopuruaren hazkundea bultzatu eban elementu nagusia. Erdi Aroan Abellanedan izan ziran gertakari nagusiak aztertu

ostean Aro Modernora helduko gara. Garai horretan eregi ziran moltso monumentaleko eraikin enblematikoenak.

Bizkaiko Batzar Nagusiak jaube diran Enkarterrietako Museoak joan dan bagilaren 2an edegi ebazan ateak jentearentzat, Covid-19a dala eta aldi baterako ixtea agindu aurretik indarrean egoan ordutegi beragaz. Abellanedako Batzarretxean (Sopuerta) dagon Enkarterriko kulturgunea, beraz, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara egongo da zabalik martitzenetik zapatura (garagarrilaren 1etik aurrera, arratsaldeko ordutegia 17:00etatik 19:00etara izango da), eta domeketan eta jaiegunetan 10:00etatik 14:00etara. Museoa bisitetan dabenek Antonio de Truebaren bizitzan eta lanean be sakondu ahal izango dabe, aldi baterako “Antonio Trueba (1819-1889). Bizkaiko Kronista” erakusketari esker

BISITA GIDAUA EGITEKO BESTE LAU AUKERA IRAILEAN ETA URRIAN:
https://www.enkarterrimuseoa.eus/home/otrasActividades_detalle.asp?idNoticia=149&idsubmenu=1&offset=1&pagDesde=12

**NOTA DE PRENSA**

# EL MUSEO DE LAS ENCARTACIONES REANUDA ESTE FIN DE SEMANA LAS VISITAS GUIADAS GRATUITAS AL CONJUNTO MONUMENTAL DE ABELLANEDA

- **Guías del museo encartado explicarán los detalles históricos y arquitectónicos de los diferentes edificios de Abellaneda: la Casa de Juntas, la Casa del Corregidor, la Posada de los junteros y la ermita del Ángel Custodio, además de la calzada real que unía la meseta con la costa.**

- **De cara a mantener las medidas de protección, las visitas se harán con cita previa que podrá solicitarse a través de la web** www.enkarterrimuseoa.eus

(*Bilbao, a 18 de septiembre de 2020*). El Museo de Las Encartaciones reanudará este fin de semana su programa de visitas gratuitas para mostrar los "tesoros" que guarda el conjunto monumental de Abellaneda. A través del recorrido cultural, que deberá pedirse con cita previa, guías del museo encartado descubrirán al visitante los diferentes edificios históricos de este enclave: la Casa de Juntas, la Casa del Corregidor, la Posada de los junteros y la ermita del Ángel Custodio, además de la calzada real que unía la meseta con la costa.

La visita se realizará siguiendo todas las normas de seguridad (grupo reducido, mascarilla y manteniendo distancia mínima de seguridad entre los/las participantes) y será imprescindible inscripción previa a través de la web del museo www.enkarterrimuseoa.eus. El punto de encuentro será el Museo de Las Encartaciones, Abellaneda (Sopuerta) y se han establecido dos turnos en cuatro días de septiembre y octubre (19 y 27 de septiembre, y 11 y 17 de octubre): a las 10:30, en euskera; y a las 12:15, en castellano. La duración de la visita será de 1 hora y la actividad requiere un número mínimo de participantes para llevarse a cabo.

El visitante encontrará explicaciones sobre el origen de Abellaneda y las distintas fases de poblamiento del lugar. Se profundizará en las raíces de la familia Abellaneda, familia noble que, establecida desde el siglo XI en este enclave, impulsará la celebración de las Juntas Generales del territorio encartado. Habrá un hueco en el recorrido para acercarse a la calzada real, eje comercial de la comarca y elemento clave que impulsó el crecimiento poblacional. Analizados los hitos más relevantes que se desarrollarán durante la Edad Media en Abellaneda, llegaremos a la Edad Moderna, momento en el que se construirán los edificios más emblemáticos del conjunto monumental.

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

El Museo de Las Encartaciones, propiedad de las Juntas Generales de Bizkaia, reabrió al público el pasado, 2 de junio, con el mismo horario que estaba vigente antes de decretarse el cierre temporal por el Covid-19. El centro cultural encartado situado en la Casa de Juntas de Abellaneda (Sopuerta), está abierto, por tanto, de 10 a 14 horas y de 16 a 18 horas, de martes a sábado (a partir del 1 de julio el horario de tarde será de 17 a 19 horas), y de 10h a 14h, los domingos y festivos. Quienes visiten el museo pueden profundizar también en la vida y obra de Antonio de Trueba gracias a la exposición temporal “Antonio Trueba (1819-1889). Cronista de Bizkaia”.

CUATRO NUEVAS OPORTUNIDADES EN SEPTIEMBRE Y OCTUBRE PARA HACER LA VISITA GUIADA:
https://www.enkarterrimuseoa.eus/home/otrasActividades_detalle.asp?idNoticia=149&idsubmenu=1&offset=1&pagDesde=12